

# BIODIBERTSITATEAREN GINKANA

- Banakako jarduera. Ginkana bukatu ondoren, gainerako taldekideekin erantzun zuzenak eta okerrak komentatuko ditugu, erreparatu beharrekoa zehazteko. Eraitza ona galderen % 75 baino gehiago ondo erantzutea izango litzateke.
- Ginkana egiteko denbora mugatua da.
- Galderetarako erantzun-aukera desberdinak daude, baina erantzun zuzen bakarra dago. Zenbakia markatu behar duzu.
- Probetan aurrera egiteko behar adina apunte izan ditzakezu ondoan, baina kontuan hartu ataza egiteko denbora mugatua dela.

Aurrera!



## **Biodibertsitatea...**

**1.- Biodibertsitatea izaki bizidunen kopuru handia da.**

**2.- Biodibertsitateak ez du zerikusirik ekosistemekin.**

**3.- Erreinu desberdinak daudela esan nahi du**



**A. Biodibertsitatea koral desberdinen kopuruaren arabera da**

**B.- Arrainak eta algak dira arrezifean bizi diren izaki bakarrak**

**C.- Koralezko arrezifean erreinu desberdinetako izaki bizidun ugari daude**

**D.- Koralezko arrezifeetan biodibertsitate gutxi dago**

**Itsaspeko bat koralezko arrezifean barrena doa. Tripulazioaren artean eztabaida sortzen da eta iritzi desberdinak daude. Noren argudioa da zuzena?**

1. A tripulatzailearena, B tripulatzailearenarekin batera
2. D tripulatzailearena okerra da, baina A-rena, berriz, zuzena
3. C tripulatzailearena da zuzena



“Patatak Amerikatik ekarri zituzten” esan nion amari bazkalorduan, platera mahaian jarri zuenean.

“Bai zera! Hemen betidanik izan ditugu patatak”, esan zuen amak, oso ziur.

“La lengua de las mariposas” kontakizuneko zatia

Irakurri “**La lengua de las mariposas**” kontakizuneko pasarte hori. Orain, erabaki esaldi hauetako zein datorren bat testuan adierazitakoarekin.

- 1.- Amak esandakoa zuzena da: patatak Europakoak dira
- 2.- Patata-haziak, beste espezie jangarri askorekin gertatu bezala, gizakiak eraman ditu kontinente batetik bestera
- 3.- Patata-hazirik gabe gure elikadura ez litzateke ona izango



**“Beno, naturan gaude eta material guztia gurekin dugu. Aholku hauek jaso ditugu biodibertsitatea ikertzeko. Zein da egokia?”**



1. Laginketa-eremua mugatu behar dugu
2. Lauki-bidezko laginketa ez da egokia
3. Gure eremuko aleak zenbatu beharko ditugu, espeziearen arabera
4. Ahalik eta espezie gehienak hartu eta eramango ditugu
5. Inguruneari lotutako datuak jaso beharko ditugu, hala nola temperatura edo lurzoruaaren lagina
6. Berdin dio zein den lekuaren orientazioa
7. Ez dira espezieak sailkatu behar
8. Laborategian lurzoruko langinen analisia egingo dugu
9. Ondorioak lortzeko ez da beharrezkoa eskuratutako datu guztiak aztertzea

**1. Zuzenak: 1, 3, 5, 8**

**2. Zuzenak: 1, 3, 6, 7**

**3. Zuzenak: 1, 4, 5, 8**

# Georreferentziazio-sistemak...



1.- Biodibertsitate-mapak dira

2.- Ezinbestekoak dira datu biologikoak mundu-mailan eskuragarri izateko

3.- Kokapenerako ez da beharrezkoa koordenatu-sistema bat erabiltzea

Lagun talde batek erleak ikusi ditu loreak dituen eremu batean. Zein da baieztapen zuzena?

Erlea galzorian dago, ez dagoelako polenik

KEVIN



Polena itsatsita geratuko zaio erleari, erle horrek beste lore batera eramango du eta horri esker polinizatuko da

AMIRA



Erleak polena loreetatik hartu eta lurrera joaten da; ondorioz, lur horretan beste landare bat hazten da

JORGE




DIANA



Lore hauek ez dute erleen beharrik, polena airearen bidez hedatzen da

1. Kevin eta Amirarena
2. Jorgerena da zuzena eta Dianak esandakoa tontakeria hutsa da
3. Amirarena da zuzena



**Infografia honetan gizakiaren ondoriozko (gorria) eta naturaren ondoriozko (urdina) biodibertsitate-galerari lotutako ehuneko nagusiak jasota daude**

1.- Baso naturalen % 80a galdu egin da

2.- Ugaztunen ia % 80 galdu egin da

3.- Lurreko biodibertsitateak kalte gutxiago jaso du ozeanoekin alderatuta





**Esaldi hauetatik zein da biodibertsitate-galeraren arazoa ondoen argudiatzen duena?**



1.- Biodibertsitatea galtzeak zuzeneko eragina du giza ongizatean, ekosistemen funtzionamendua eta ekosistemek gizartearentzat funtsezkoak diren zerbitzuak sortzeko duten ahalmena kolokan jartzen dituen heinean.

2.- Egungo biodibertsitatearen galera bat-batekoa eta handia da, eta horrek dagoeneko galzorian dauden espezie batzuen biziraupena arriskuan jarri du.

3.- Biodibertsitatea galtzeak gurekin bizi diren beste espezie batzuk desagerraraziko ditu, eta ez dugu horretarako eskubiderik.

Irakurri [EFE](#) agentziaren berri hau (2022/06/01): “Zebra muskuilua dagoeneko 15 demarkazio hidrografikoetatik 8n aurkitu da”

Zebra muskuilua [espezie exotiko inbaditzaile](#) arriskutsuenetariko bat da, eragin ekonomikoagatik eta ekosistemetan duen eraginagatik, eta Espainiako hamabost demarkazio hidrografikoetatik zortzitan aurkitu da dagoeneko. Konfederazio batzuek 30 milioi euro baino gehiago gastatu dituzte jada espeziearen zuzeneko kudeaketa egiteko. Zebra muskuilua planetako EEI arriskutsuenen *top ten* zerrendan dago, inpaktu sozioekonomiko eta ekosistemiko handiengatik (giza osasunerako ez da arriskutsua), eta espezie hori edonora iristea beti da "albiste txarra".

**Espezie inbaditzaileei lotutako esaldi hauetako zein da zuzena?**

- 1.- Espezie inbaditzaileak ekologikoki eta kopuruari dagokionez dominanteak izan daitezke
- 2.- Espezie inbaditzaileek biodibertsitatea areagotzen dute, baina bertako espezieak kaltetzen dituzte
- 3.- Espezie inbaditzaileek kalte ekonomikoak eragiten dituzte, baina ez dute desagerpenik eragiten



## Animaliak erabiltzea...



**1.- Ikerketa zientifikorako animaliak erabiltzea (biomedikuntza, bioteknologia, etab.) ez da inoiz eztabaidagai izan.**

**2.- Ezinezkoa da elikadura osasungarria izatea animalien eskubideak urratu gabe.**

**3.- Gure legeen arabera, animaliak ez dira “gauzazatzat” hartzen, izakin bizidun “sentikortzat” baizik.**

**Esaldi hauetako zeinek jasotzen du ondoen biodibertsitate-galeraren kausetako bat? Hautatu aukera zuzena:**

**1.- Globalizazioa eta horrek elikagaien segurtasunaren galeran duen eragina.**

**2.- Klima-aldaketak berotze globala eragiten du. Horrek, aldi berean, baso-suteak areagotzen ditu, bertako flora eta faunan lehengoratu ezin den kaltea sortuz.**

**3.- Teknologiaren arloko aurrerapenek gure bizimodua, lan egiteko, aisiaz gozatzeko eta gure arteko harremanak izateko modua nabarmen aldatu dute.**

## Irudien jatorria:


- [Biodibertsitatea](#). [Pxhere](#). Jabetza publikoa
- [Itsaspekoa](#). [Jo Zimny Photos](#). CC BY-SA
- [Tximeleta](#). [Pxhere](#). Jabetza publikoa
- [Haziak](#). [Pxhere](#). Jabetza publikoa
- [Zientzilariak ikertzen](#). [Whitehill Barry](#). Jabetza publikoa.
- [Laborategia](#). [Jarmoluk](#). CC BY SA
- [Panda](#). [Einszweifrei](#). CC BY SA
- [Infografia](#). Egile asko. CC BY SA
- [Manifestazioa](#). [Julia Hawkins](#). CC BY SA
- [Zebra muskuilua](#). [GerardM](#). CC BY SA
- [Baso-suteak](#). [Freepick](#). Jabetza publikoa.
- [Elefanteak ehizatzen](#). [Busque Bumihillsfoundation](#). CC BY SA
- [Oreinak](#). X posid. CC BY SA
- [Sagua](#). [Pxhere](#). Jabetza publikoa

**Biodibertsitatea galtzearen ondorioak oso larriak dira; izan ere, gure planetan izaki bizidunok bizirauteko ezinbestekoa da. Adierazi zein den erantzun zuzena biodibertsitate-galeraren ondorioei dagokienez.**

**1.- Uholdeak**

**2.- Espezieak desagertzea**

**3.- Artikoa urtzea**



Estatuko egunkari batek, [Juan Fueyo](#) zientzialariari asturiarrari 2022ko urriaren 16an egindako elkarrizketa batean, “seigarren desagerpena hasi dela” baieztatu zuen. Zer esan nahi du “seigarren desagerpena hasi dela” esaldiak?

1.- Gaur egun sei biodibertsitate mota daudela.

2.- Gizakia dela gaur egun biodibertsitatea galtzearen arduradun nagusia.

3.- Gizakia dela azken bost desagerpenen arduraduna.



## **Haziak kontserbatzea...**

**1.- Haziak kontserbatzen dira galtzea tamalgarria delako**

**2.- Haziak gordetzen dira, ingurunearen baldintzak aldatzekotan beharrezkoak badira, gordeta izateko**

**3.- Haziak gordetzen dira barietate hibrido komertzialak sortzeko eta horiekin salerosketak egiteko**



## **Ikerketa batean...**

**1.- Ikerketa batean oso garrantzitsua da metodo zientifikoari jarraitzea**

**2.- Ikerketa batean garrantzitsuena esperimendatzea da**

**3.- Ikerketa batean aldagaiak bukaeran zehazten dira**



## **Esaldi hautetatik zein da biodibertsitate-galeraren arazoa ondoen argudiatzen duena?**

- 1.- Biodibertsitatea galtzeak zuzeneko eragina du giza ongizatean, ekosistemen funtzionamendua eta ekosistemek gizartearentzat funtsezkoak diren zerbitzuak sortzeko duten ahalmena kolokan jartzen dituen heinean.
- 2.- Egungo biodibertsitatearen galera bat-batekoa eta handia da, eta horrek dagoeneko galzorian dauden espezie batzuen biziraupena arriskuan jarri du.
- 3.- Biodibertsitatea galtzeak gurekin bizi diren beste espezie batzuk desagerraraziko ditu, eta ez dugu horretarako eskubiderik.